Síguenos en /
Jarraiguzu hemen:

Avda. de Barañáin
/ Barañaingo etorb. 10, 1-A
31008 Pamplona-Iruña
T. 948 275 302

**www.ateneonavarro.es**
**www.pamplonaescultura.es**
**www.iruñakulturada.eus**

Diseño / diseinua : Lucía Lapeña

mecna

Ayuntamiento de Pamplona Iruñeko Udala

ATENEO NAVARRO NAFAR ATENEOA

DL NA 177-2017




# IRUÑA HIRIA NAZIOARTEKO POESIA SARIA

# PREMIO INTERNACIONAL DE POESÍA CIUDAD DE PAMPLONA




PREMIO INTERNACIONAL DE POESÍA CIUDAD DE PAMPLONA

IRUÑA HIRIA NAZIOARTEKO POESIA SARIA

EU

# Oinarriak

**1.** Pertsonak oro lehiatu daitezke, haien nazionalitatea edozein izanda, betiere aurkezten diren lanak gaztelaniaz edo euskaraz idatziak badira.

**2.** Aurkezten diren lanek oso-osorik argitaratu gabeak izan behar dute, bai eta aurretik epaia emandako beste ezein sariketan saririk eskuratu gabeak ere; halaber, ezinen da parte hartzen aritu aldi berean beste poesia-lehiaketa batean. Aurreko urteetan irabazle izandakoak ezin izanen dira aurkeztu. Gaia eta forma libreak izanen dira, eta luzera, 400 eta 800 bertsoren artekoa.

**3.** Jatorrizko lanen lau ale aurkeztu behar dira, elkarrengandik bereizita eta DIN A-4 tamainan, orriak behar bezala zenbakiturik eta josita, grapatuta edo koadernatuta daudelarik. Poemak tarte bikoitzean idatzita egonen dira, eta alde bakarretik mekanografiatuak.

**4.** Jatorrizko lanak ikurritz eta plikako sistemaren arabera aurkez daitezke. Azalean, izenburua eta ikurritza idatziko dira. Atxikitako gutun-azal itxi batean, honako datu hauek emanen dira: egilearen izen-abizenak, nazionalitatea, helbidea, nortasun agiriaren edo pasaportearen kopia bat, harremanetarako telefono-zenbaki bat edota posta elektronikoa. Horrekin batera aurkeztu behar dira hala egilearen bibliografia –labur adierazita– nola agiri bat, egiaztatzeko lana ez dela beste ezein literatur lehiaketara aurkeztu. Aurkeztutako lana ezin izanen da erretiratu lehiaketa egiten ari den bitartean.

**5.** Lanak aurkezteko epea deialdi publikoa egiten den egunean hasiko da, eta bukatu, **2017ko apirilaren 30eko 14:00etan**, epea luzaezina izaki. Onartu eginen dira data hori baino lehenago edo egun horretan bertan frankeatutako lanak.

**6.** Aurkeztu beharreko lanak posta ziurtatuaren bitartez igorriko dira NAFAR ATENEORA (Barañaingo etorbidea 10, 1.A, 31008 Iruña, Nafarroa), gutun-azalean honako hau adierazita: *IRUÑA HIRIA* XI. Nazioarteko Poesia Sarirako. Halaber, posta elektroniko bidez ere igortzen ahalko dira ateneo@ateneonavarro.es helbidera, mezuari bi artxibo hauek atxikiturik: bata, egileen datuekin eta bestea, obrarekin.

**7.** Sari bat emanen da, 3.000 euroko diru-zuzkidura izanen duena. Kopuru horri legearen arabera dagokion PFEZ atxikiko zaio. Sariaren barruan dago, baita ere, lan saridunaren argitalpena eta Iruña hiria ordezkatzen duen eskultura-pieza bat. Egileak konpromisoa hartzen du 2017ko azken hiruhilekoan eginen den sari-banaketara bertaratzeko.

**8.** Epaimahaiaren osaera eta kideen izenak Sariaren epaia ematen denean emanen dira jakitera.

**9.** Saria eman gabe gera daiteke.

**10.** Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da. Sariaren epaia 2017ko ekainean emanen da argitara, prentsaurreko bidez, Iruñeko Udaletxean.

**11.** Saririk jaso ez duten lanak ez zaizkie egileei itzuliko, eta suntsitu eginen dira epaia jendaurrean agertu eta bost eguneko epea igarotakoan.

**12.** Ez da harremanik izanen poesia-lehiaketara aurkeztu diren egileetako inorekin.

**13.** *IRUÑA HIRIA* XI. Nazioarteko Poesia Sarira lanak aurkezteak berekin ekarriko du egileek erabat onartzea oinarri hauek.

ES

# Bases

**1.** Podrán concursar todas las personas, cualquiera que sea su nacionalidad, siempre que las obras presentadas estén escritas en castellano o en euskera.

**2.** Los trabajos presentados deberán ser inéditos en su totalidad, no haber obtenido ningún premio en otros concursos de poesía previamente fallados y no estar concursando en este momento en otro certamen poético. Los ganadores de años precedentes no podrán presentarse. El tema y la forma serán libres, con una extensión de entre 400 y 800 versos.

**3.** Los originales se presentarán por cuadriplicado, en ejemplares separados, en tamaño DIN A-4, debidamente numeradas sus páginas y cosidas, grapadas o encuadernadas. Los poemas estarán escritos a doble espacio y mecanografiados por una sola cara.

**4.** Los originales podrán presentarse por el sistema de lema y plica. En la portada han de llevar título y lema. En un sobre cerrado adjunto constará el nombre del autor, su nacionalidad, domicilio y una copia del documento de identificación o del pasaporte, teléfono de contacto y/o correo electrónico. Ha de acompañarse de una breve bibliografía del autor y de un documento certificando que dicha obra no se ha presentado a ningún otro certamen literario vigente. La obra enviada no se podrá retirar en el transcurso del certamen.

**5.** El plazo de admisión de los trabajos comenzará el día de su convocatoria pública y finalizará improrrogablemente a las **14 horas del 30 de abril de 2017**. Serán admitidos los trabajos franqueados con fecha anterior o igual a ésta.

**6.** Las obras presentadas se enviarán por correo certificado al ATENEO NAVARRO / NAFAR ATENEOA, Avda. de Barañáin 10, 1º A. 31008 Pamplona (Navarra), indicando en el sobre: Para el XI. Premio Internacional de Poesía "CIUDAD DE PAMPLONA". También podrán enviarse por correo electrónico a la dirección: ateneo@ateneonavarro.es en dos archivos adjuntos, uno con los datos del autor y otro con la obra.

**7.** Se otorgará un premio con una dotación económica de 3.000 euros, a la que se le retendrá el IRPF correspondiente según ley, así como la publicación de la obra ganadora, junto a una pieza escultórica representando a la ciudad de Pamplona. El autor se compromete a asistir a la entrega del premio en el último trimestre del año 2017.

**8.** La composición del Jurado y los nombres de sus integrantes se harán públicos en el fallo del Premio.

**9.** El Premio podrá declararse desierto.

**10.** La decisión del jurado será inapelable. El fallo del premio se hará público durante el mes de junio de 2017, mediante rueda de prensa, en el Ayuntamiento de Pamplona.

**11.** Los trabajos que no sean premiados no se devolverán a sus autores y se destruirán cuando hayan pasado cinco días del fallo público.

**12.** No se mantendrá correspondencia con ninguno de los autores de los poemarios que se hayan presentado al concurso poético.

**13.** La presentación de trabajos a este XI. Premio Internacional de Poesía "CIUDAD DE PAMPLONA" implica la total aceptación de las presentes bases por parte de sus autores.